

Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Agur t'Erdi Aroa

BETELANA zer den azaltzeko, andre-jaunok, nekez aurkituko duzue adibide hoberik, egunotan bazterrrak (tira, euskararen txokotxoak) astindu (tira, zipriztindu) dituen gure ereserki arranditsuaren hitzena baino: “Agur jaunak, jaunak agur / agur t'erdi”.

Puskaz mamitsuagoa da agur banatze huts horren osteko puntua: “Denok Jainkoak / eiñak gire, / zuek eta / bai gu ere” (sic aipuak oro, orain artekoak eta bai gerokoak ere). Berdintasun aldarrikapen nabarmena da hori, dudarik gabe, nahiz ez dakigun jainkoak berdin egindako horietan andreak ere sartzen diren, ez baitira aipatu ere egiten (tira, garuna mahaspasa bihurtu arte zuketuta, “zuek eta” hori izan liteke andreak, zeharka bada ere, aintzat hartzeko estrategia halako bat, gu gizonok andre jendeari grazioski egindako oparia).

EHUren ikasurte hasierako ekitaldian piztu zen eztabaida. Ekitaldi arranditsu haren mailara-ko ez du noski edozein kantuk balio, eta ereserki hori aukeratu zuen EHUko abesbatzak (edo goragokoren batek).

Eta? Urtean zientoka ekitaldian kantatzen da *Agur jaunak*, eta ez da deus gertatzen. Kontua da, ordea, abesbatzak ez zuela kantuaren ohiko bertsoia erabili, okasiorako propio aldatutako hitzak kantatu baitzituen. Aldaketa hori egiteko “iradokizuna”, antza, goitik etorri omen zitzaion zuzendari jaunari. Nolanahi ere, aldaketa horrek eragin du, hedabide eta sare sozialetan, hasieran aipatutako ika-mika.

Funtsean, betiko auzia da: zeri eman lehentasuna, tradizioari ala giza eskubideei? Hori baita kontua, bai *Agur jaunak* kantuaren kasuan, bai Irun eta Hondarribiko alardeenean, edo zezenketa eta neska nerabeen ablazioenean ere.

Iñaki Anasagasti jeltzale amorrutuak adibideratzen du tradizioa gurtearen aldekoen jarrera: “Nortzuk

dira Goirizelaia errektorea edo ekimen hori bultzatu dutenak euskal herritarren parte baten historia aldatzeko?”. Berdin galde genezake besteok, amorruta irentsita, ea euskal herritarren zein partek ezarri zizkigun gainerakooi *Agur jaunak* eta *Gora ta Gora* ereserkiak, besteak (asko eta oso) beste.

Anasagastirenaz oso bestelakoa da Anjel Lertxundiren ikuspegia: gizarteak aspaldion aurrera pauso nabarmenak egin dituenek emakumeen eskubideetan eta laikotasunean, aurrerapen horiek plazan beren isla izateari primeran deritzo Lertxundik (nik ere bai, jakina), eta unibertsitatearen jokabidea txalotzen du, “ibilian ikasi duguna –jaunak eta andreak denok berdinak eginak gara– Unibertsitateak natural-natural kantatu eta ofizialdu” duelako (horretan ere bat nator ni).

Unibertsitateak hori berezko egitekoa duela dio gero idazle oriotar zarauztartuak: “Horretarako baitago, besteak beste: aldaketak egiaztatu eta sendotzeko”.


Hori ere horrela da, bai (tira, hala behar luke, behintzat), baina horretan ez naiz Anjel bezain baikorra. Nahi nuke izatea, baina unibertsitate barrutik ezagutzen

dut, eta nago oraingo “Agur jaunak ta andreak” hori areago dela politikoki polit izan nahiak eragindakoa, gizartearen “aldaketak egiaztatu eta sendotzeko” ahalegin benazkoa baino.

Euskal gizarteko ezinikusi, istilu eta gatazkak arrazoiaren bidez gaunditzen laguntzea ere unibertsitatearen berezko egitekoa dela esango nuke, baina batekoz bestera da hori, euskal gatazka antonomasikoa bere

gaiztoenean zegoen garaian nik ikusi dudanaren arabera.

Aukeran, unibertsitatean jauntxo (tira, eta andretxo) gehiegitxo ote dagoen, hori da nire susmoa, hemeretzi urteko eskarmen-tuan oinarritua. Eta, kantuak kantu, hori horrela den bitartean, nekez aterako da agur t'Erdi Arotik. ■



Antton Olariaga